


Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko abuztuak 6 / III. urtea / 87. zenbakia

Pablo Antoñana, literatura ahanztirik

Badira, nahi gabe, zerrendak egiterakoan, ahanzten diren izenak. Badira, txarrak iza-teagatik edo, nahita baztertzen direnak. Baina badira, halaber, onak eta adituen ahotan ibiliagatik, intentzio osoz atzentzen diren bakan batzuk, ziztatzailegiak direlako edo. Pablo Antoñana da horietakoa. Duela 66 urte Bianan jaiotako idazle honen 'No estamos solos' izena duen nobela argitaratu berri du Pamielak, idatzi eta hogeita hamar urte pasatu eta gero. Eta, arrunt ezezaguna izanagatik ere, idazle nafarrek bere meritua onartu egin diote, maisutzat jotzeraino. «Beranduegi» dio berak, eta amorrutaz begiratzen du atzera, bere liburuei erantzun ba-karra isiltasuna zen ga-raietara. 36ko Gerrak bortizki markatuta, honen inguruan jira-bira dabilkio oraindik gogoia idazleari, eta Nafarroan, egun, lehengo tolerantziarik eza berbera dagoela sinetsirik dago. Sakonean, gorro-toak dira. Ez dio utzi, baina, idazteari, eta kar-petatan pilatuta daukan materiala inoiz argitara ematea da bere gogoetako bat. Ahanztari nahi baitu, fi-nean, ahanztura.



Metropoli forala



FELIPE RIUS

Hiria fantasmaz bete zaigu, arimak noraezean dabil-tza eta bozgorailuetatik depresioaren etorrera iragartzen dute behin eta berriro. Hilezkorak izan arren, espektro batzuk azken pisuetara igotzen dira hondamen-diaren berria ematen duten bezain laister beren burua botatzen duten lehenbizikoak izan nahi dutelako. Garai modernoetako pestea hemen dago, eta, Sanferminen festondoa kentzeko astirik izan gabe, jendea elizetara sartzen da Bundesbankari otoitz egiera. Elizaren barruan asko dira beren azpian dauden hilobie-tako bat lortu nahi luketenak, baina aspaldian bete ziren, beste krisi ba-ten ondorioz. Espekuladoreek Eu-ropa izorratu nahi dutela diote ko-munikabideek, beharbada haiekin oheratu nahi izan ez zuelako edo oheratu zenean birjinitatea aspal-dian galduta zuela ohartu zirelako. Luxozko jatetxeetako ateetan zai daude sukaldariak eta beren aurpe-gi zurbiletan momentu latzetan aurkitzen garela irakur daiteke. Mundu berri baten aurrean geunde-la esan ziguten eta arrazoia zuten. Bestela nire kaleko izkinak saxo-foia jotzen zuen neskato errubioa ez zatekeen bapatean desagertuko eta gure harakinak ez zukeen bere bu-rua zintzilikatuko haragia jartzen zuen burdin horietako batetik. Lehenago jende irrifartsua ikusten omen zen kaleetan, kontatzen zuten zaharrenek, baina gaur egun galtza laranjak zeramatzenak ere desa-gertu dira eta bere irlara erretiratu zen Robinsoni ez zaio periodikua erosteko iristen. Munduko pariek —non entzun ote dut hitz hori lehenago— Frankfurt, New York, Tokio eta Bilboko Boltsak atrakatu beharko lituzkeela idatzi dute, bai-na inork ez die irakurri eskale guz-tiak telebistaren aurrean baitaude 'El precio justo' ikusten eta kalean dabilzan bakarrak begirada gal-duta dute eta noizean behin musika funebre bat txistukatzen dute inda-rrik gabe, zeinek daki noren ome-nez, agian nire oroimenez. Auzo altuetako leihoren batetik arratoi itxura duen agure batek parre egiten du hutsik dauden kaleei begira, hiru segundo barru bihotzeko batek se-ko utziko duela susmatu gabe. Agian orduan denok espero dugun harmonikaren musika leuna en-tzunen da eta jendea kloaketatik ateratzen hasiko da. Hurrengo kri-sia arte zoriontsuak izango gara.

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



'Garaikideko Pintura' izeneko erakusketa zabalik dago Nafarroako Museoa uztailearen 29a arte. Bertan, hamahiru artista ezberdinen lanak ikus daitezke, 1983 eta 1992 urteak bitartean egindakoak. Amaitu eta gero, Gares, Tafalla eta Tuterako kultur etxetara eramango dute erakusketa ibiltari hau.

ZINEMA



'Arrosaren izena' pelikula ospetsua botako dute datorren asteartean, abuztuak 10, Goizuetako herriko plazan, euskarazko zine emanaldien barruan. Gaueko 11.00etan hasiko da.

'Hook' izeneko pelikula izanen da ikusgai asteburu honetan Urzainki eta Galar-Espartza herrietan, Nafarroako Gobernuak udarako antolatzen duen ekitaldien artean. Bihar larunbata, abuztuak 7, Urzainkin botako dute filme hau eta etzi, igandean, Urzainkin. Emanaldiak gaueko 10.00etan izanen dira. Sarrera dohainik izanen da.

ANTZERKIA



'El pais de Hamerlin' izenburuko antzezlan eskainiko du asteburu honetan Bajo la Arena taldeak Galar-Getze eta Urzainki herrietan, Nafarroako Gobernuaren programazioaren barruan. Bihar larunbata, Galar-Getze herrian izanen da ikusgai obra hau, arratsaldeko 19.30etan, eta etzi, igandean, Urzainkin, ordu berean. Sarrera dohainik.

'Birtziklaia' izeneko obra antzeztuko du asteburu honetan Teatro Kollins Clown taldeak Karkar eta Lerin herrietan. Nafarroako Gobernuak HIZkuntz Politika sailak antolatuta, euskaraz izanen dira. Bihar larunbata, Karkar herriko igerilekuetako pilotalekuan izanen da emanaldi hau, arratsaldeko 19.00etan, eta etzi, igandean, Leringo Udal igerilekuan eskainiko dute, arratsaldeko 18.00etan. Sarrera dohainik izanen da.

MUSIKA




Rosario Flores abeslaria ariko da bihar, uztaileak 7, Erriberri, Nafarroako Jaialdien programazioaren barruan. Pop-Rock kontzertu hau gaueko 10.00etan hasiko da, eta sarrerak 1.000 pezetan saltzen dituzte, Iruñeko Sarasate pasabidean dagoen etxetxo batean.

Galipentzu eta Aragoia

Ez da oso gomendagarria ingurua uda minean egiteko, eguzki galdatan, baina kontuan harturik uda hau ohi baino freskoagoa dugula -aste honetan emandako datuen arabera, bi gradu gutxiagoko batzbesteko tenperatura gozatzen edo parratzen ari gara Nafarroan- ez da batzuek uste duten bezain erokeria ere izango. Nolanahi ere, animatuz gero, txano on bat eta ur nahikoa eramatea gomendatzen dugu eder baino gogorra eta babesik gabeko inguru honetatik ibiltzeko.

Galipentzu Zangozaldean dago, nahiz eta batzuek Oibarren kokatu, Aiesa, Zarrakastelu, Kaseda eta Uxerekin batera. Aragoi ugaldearen amildegian iltzaturik, erasoei aurre egiteko egindako herri baten irudi garbia erakusten du. Izan ere, tarte hau zuten gogoko beste garaietako inbasoreek Nafarroan barna sartu nahi zutenean. Hemendik, Zangoza eta Ledeano heltzen ziren, eta hortik aurrera, Izagaondotik eta Irunberitik, Iruñeraino. Horrelaxe egin zuen Abad al-Rahman IIIak 924. urtean.

Herriak nahiko kokapen bixia dauka, baina ez da, inondik inora, funtsik gabekoa. Har-



kaitz baten gainean pausatruik, begiralearen antza hartzen zaio urrundik begiratuz gero. Oso garrantzizkoa da erdialdeko zonalde honetan, eta horren lekukoak dira Mediterraneo aldeko laboreak -garia, mahastia eta olibondoak- ermitak eta zubi erromanikoak.

Ibilbidea, hain zuzen ere, hortik ateratzen da, zubitik, eta ugaldea zeharkatu ondoren, Zarrakastelura zeraman bide zaharra hartu eta uraren zentzu

berberari jarraituko diogu. Orduan helduko gara bidegurutzetara, eta ezkereruntz hartuta, Peña Garaia doan bideari helduko diogu. Zenbait tegi bazterrean utzi ondoren, jeitsi eta ugalderaino helduko gara, eta hortik, ertzetik, hasierako punturaino helduko gara. Aragoi ugaldea Nafarroako garrantzitsuen da, Ebro kenduta, eta inguru honetan fauna eta begetazio aberatsa aurkitu daiteke.

ASTEKO PERTSONAIK



Ramon de Quintana
Futbolaria



Andres Aberasturi
Kazetaria



Fermin Lopez de Isturiz
Mendigoizalea

Hurrengo denboraldirako Osasunako lehen fitxaketa izan da Ramon de Quintana Kataluniako gaztea. Ustekabean iritsi zen berria, inork ez zekien mutil honen berririk, baina bapatean, pasa den egunean aurkeztu zuten gorritxo moduan. Ezkurak hasieratik esan zuen aurrelariak behar zituztela, baina lehen fitxaketa atzelaria dugu, 21 urtekoa, Figueres taldeetik etorria. Datozen bi denboraldirako kontratua sinatu du gazte honek, eta pozik azaldu zen aurkezpen egunean. Lehen mailako beste talde batzuen eskaintza izan zuela adierazi zuen, Racing edo Logroñes hain zuzen, eta azkenean Osasunara etortzea erabaki du, «talde serioa delako eta nere aholkulariak hori gomendatu zidalako», bere hitzetan.

Nafarroako Jaialdiak antolatuta, telebistari buruzko ikastaro bat burutu da aste honetan Iruñean, 'Telebistan komunikatzea: teknika edo/eta enpatia' izenburupean. Ikastaroaren zuzendaria Andres Aberasturi kazetaria da, eta berak adierazi zuenez, normalean «aztertzen ez den ikuspuntuari buruzko zerbait egin nahi nuen, eta ideia hau Argiñanoren fenomenoak ikusi eta gero bururatu zitzaidan». Ikastaroa, esan beharra dago, oso interesgarria izan da, eta hori garbi geratu da jendearen partehartzean. Alejandro Gomez Lavilla TVEko sustapen eta komunikazio zuzendaria, Jose Miguel Contreras Telemadriderako aholkulari bat, Eduardo Garcia Matilla publizista eta Antxon Urrusolo ETBko 'Rifi-Rafe' saioaren zuzendaria izan dira hizlariak.

Pasa den astelehenean hil zen Ordesan Fermin Lopez de Isturiz Iruñeko mendigoizalea, 60 metrotik behera erori ondoren. Goardia Zibilak adierazi zuenez, mendigoizale talde batek mendi gora zihoala aurkitu zuten gorpua, 'Clavijas de Solarun' izeneko lekua ondoan. Lopez Isturiz erori eta berehala hil zela adierazi zuten medikuek, eta bere gorpua oso gaizki zegoela gaineratu zuten. Hiletak pasa den astelehenean izan ziren, eta gorpua erraustuko dute, berak horrela nahi zuelako. Ondoren, erraustak mendi batean botako dituzte. 58 urte zituen, baina gaztetatik hasi zen Lopez de Isturiz menditarra igotzen, zaletasun handia baitzuen. Nafarroako Kirol Elkarteak kidea zen aspalditik eta federatua zegoen.

AHAZTU GABE!

BIZIKLETA Martxa Itoizko akanpadara antolatu du asteburu honetarako La Tortuga Perezosa taldeak eta Itoizko Koordinadorak. Gaur ostirala, abuztuak 6, aterako da, Gaztelu Plazatik. Bidean, Agoitzen geldituko bat egingen dute, herriko jaiak direnez, poteo herritarra burutzeko. Ondoren, akanpadara iritsi, dendak jaso eta afaria izanen da.

Larunbatean, berriz, gosari berezi baten ostean, eta akanpadan «lantxo» batzuk egin eta gero, goizeko 11.00etan bizikleta martxa bat antolatu dute «egingo ez duten» urtegiak estaliko dituen sakantara, antolatzaileek esan zuten. Bazkal ostean «kuluxka erreibindikatiboa» prestatu dute, jokuak eta bainualdiak ondoren, eta afaldu eta gero tertulia izanen da akanpadan bertan. Hamar t'erdietan mikro-jaialdia egonen da, dantzaldiek.

Igandean, abuztuak 8, gosariaren ostean, lanak ikustera martxa bat antolatu dute. Arratsaldean, zuhaitz bat landatu ondoren, Iruñera itzuliko dira, 17.30etan.

Eraman beharreko gauzak ere zehaztu zituzten: janaria (bertan gosaria bakarrik emango baitute), denda, zakua, esterilla bat, eguzkirako krema eta txano bat.

ADI!

Udako Programazio berezia hasiko du datorren astean Irati Irratiak, abuztuan eta ongi ateratzen bada irailean ere jarraitzeko. Bi ordu t'erdieguneko eskainiko dituzte, 12.00etatik 14.30etara. Denbora horretan, agenda berezia, albisteak, elkarriketak, musika, herriei buruzko berriak edo informazioa, eta antzeko gauzak egingo dituzte. Musika saio bereziak ere izanen dira, adinaren arabera prestatutakoak.

MEZKIRIZKO Bost Kirol Txapelketa eta Nafarroako Txapelketari buruz ariko dira datorren asteartean Euskalerrria Irratiko goizeko saioan. Bertan, gai horiek aztertuko, Martin Ibarra pilotariak parte hartuko du, azalpenak emanez. Bestalde, astearteko ipuin bereziak kontatzen dituzte Irrintzi Dorreko emisoran, goizeko saioan hori ere, 10.00etan hasita.



Bertizarana


Zalditegia zabalduko da asteburuotan

P.U. / IRUÑA

Asteburu honetan zabalduko da berriro, eta era ofizialean, Bertizko Zalditegia. Bertizko Jaurerrian kokaturik, aspaldiko asmoa betetzen da horrela, eta inguru honetan dagoen eskaintza, nolabait, osatu egiten da. Hamar zaldi paratuko dira hasieran, zenbait ponyekin batera, baina aurrerantzean kopurua gehitzeko asmoa badute arduradunek, zalditokiak gehitzearekin batera. Oro har, dena ongi joanez gero, beste hamar bat zaldi paratuko lirake luze gabe.

Asmoa inguru osorako eskaintza ziurtatzea da. Horrela, herriko bestetan zaldiekin lotutako ekitaldiak egiteko parada izanen da, eta bai gaztedien egutetan, nola aste kultural, segizioak eta abarretan erabili ahal izanen dira. Halaber, elkarte kulturelek eta talde orok zalditegiaren zerbitzuak edukitzeko txartelak erosteko aukera izanen dute, eta zalditegiaren zaldi gainean ongi aritzeko ikastaroak antolatuko dira. Zalditegiaren eraikinean taberna jarriko da eta aurrerantzean janariak eta lo egiteko ere eskaini nahi da.

Zalditegiaren buruan Gasteiz-



Zaldiz ibiltzeko aukera izanen da zonalde osoan.

ko 'Zaldiko II' izeneko zalditegia izanen da, esperientzia handikoa arlo honetan. Berarekin batera, Bidasoa Kultur Zerbitzuak (BKZ) izena daraman elkarteak lagunduko du zeregin horretan, bera arduratzen baita Bertizko aukera turistikoak bultzatzeaz.

Horrela, zalditegiak gain, mendi bizikletak eta piraguak alokatzeko aukera dauka elkarteak. Azken honetarako Reparazea izeneko zubiaren putzua erabiliko da.

Orain berriro martxan jartzen den zalditegiaren zerbitzu hone-

kin Bertizek turismoarendako dituen eskaintzak zabaldu eta anizten ditu, hasierako asmoa baitzen bertako agintarien artean zalditegia paratzearena. Horri buruz informazio gehiago nahi duenak telefonora hots egitea besterik ez dauka: 58 04 90.



OTSAGIko Muskilda, Gari-noingo Catalaingo Kristoa eta Olorizko Etxano ermitak interes kultureko basilizak izendatu ditu aste honetan Nafarroako Gobernua eta monumentuen maila eman. Muskilda basiliza gobernuarena da, eta 1982 eta 1989an berritu zen. Bertara hurbiltzen dira urtero otsagiarrak erromerian. Catalaingo Kristoa monastegia izan zen XIII. mendean eta bertan ere erromeria egiten dute urtero orbaibartarrek. Etxanoko San Pedro ermita, bere aldetik, XII-XIII mendeko erromanikoa da, eta 1976an berritu zen. Hiruak oso ezagunak dira Nafarroan eta Nafarroako Kultur Kontseiluak oniritzia eman ondoren eman zaie izendapena.

FITEROk kultur etxea izan leza-ke luze gabe, udalbatzak San Raimundo plazan dagoen Calatrava zineman paratzeko erabakia hartu ondoren. Aurrekontua 30 milioi pezetakoa da, eta erabakiak txapela eragin badu ere, askara botatzekoa ere bada, harri-garria baita 2.200 biztanleko herri batean oraindik ere horrelakorik ez izatea.



ORONoz-MUGAIRiko arrain haztegia milaka arrain eta arrainkume hil ziren pasa den astearen hondarrean, Bidasoa ibai-ko zentral hidroelektrikoaren eraginez, urak izan zuen oxigenoaren kopuruen aldaketak sortuta. Hori da, behintzat, administrazioa erabiltzen ari den argudioa, nahiz eta zenbait ikerketa egiten diharduen. Arrainak izokinak eta amurruak izan ziren, eta hasieran izokina berreskuratzeko martxan jarri den egitasmoa kolokan jar lezakeen susmoa zabaldu zen bertan. Hala ere, Alberto Otamendi Nafarroako Gobernuaren Ingurugiro Zerbitzuaren buruak neurri guztiak hartuko liratekela azaldu zuen.

KASKANTEko Lehen Mailako Osasun Zainketaren buruaren aldaketak protesta ugari eragin ditu zonaldean, eta aunitz dira dagoeneko Osasunbidearen erabakiaren kontra bere jarrera azaldu dutenak. Hain zuzen ere, sendagileek beraiek soilik lege dagozkien betebeharrak burutzea erabaki dute protesta gisa. Zuzendari berria Emilio Portet da, Murtxanteko sendagile ohia, eta sendagileek «bidegabekeria» eritzi diote aldaketari. «kontuan harturik gizon honek izan dituen arazo eta polemikak».

FESTAZ FESTA

SARTAGUDA

Abuztuak 7, larunbata

11.30 'Kalimotxokada' herriko plazan
12.00 Txupinazoa Udaletxean. Jarraian txarangak, erraldoiak.
15.00 Kalderete lehiaketa.
19.00 Salbea eta jarraian txarangarekin kalejira.
20.00 Entzierroa.
21.30 Aquarium orkestrarekin dantzaldia.
23.00 Zezensuzkoa.

01.00 Kontzertua udal pilotalekuan Parabellum eta Piperrak taldeekin.
01.00 Aquarium taldearekin dantzaldia.

02.00 Kalejira txarangarekin.

Abuztuak 8, igandea

08.00 Entzierroa.
12.00 Meza. Jarraian prozesioa Errosario Ama Birjinaren omenez.
17.00 Haurrendako zinema kultur etxean.
19.00 Herri kirolak.
20.00 Entzierroa.
21.00 Zurrakapotea. Jarraian txarangarekin kalejira.
21.30 Inguma taldearekin dantzaldia.
02.00 Txarangarekin kalejira.
02.30 Zezensuzkoa.

FUNES

Abuztuak 8, igandea

12.00 Txupinazoa eta jarraian Txantreako gaiteroekin kalejira.



18.00 Gwyfyd antzerki-dantza taldearen ikuskizuna.
19.30 Santiagoren omenezko bezperak.
23.30 Txarangarekin kalejira zubiraino. Bertan su artifizialak.
24.30 Alaska orkestrarekin kalejira.

BERA

Abuztuak 6, ostirala

09.00 Trikitilari eta gaiteroak.

10.15 Haur eta Gazte mailako pilota partiduak.
10.30 Haurrendako txirrindularitza frogak.
12.30 Erraldoi eta kilikiekin kalejira.
19.30 Betizuak Udaletxe plazan. Zizkuitz orkestrak alaituak.
21.00 Gaiteroekin dantzaldia.
23.45 Zizkuitz orkestrarekin dantzaldia.
24.00 Baldin Bada taldearen kontzertua.

tua.

Abuztuak 7, larunbata

19.00 Txarangarekin kalejira.
20.00 Zizkuitz taldearekin dantzaldia.
23.45 Zizkuitz taldearekin dantzaldia.

AGOITZ

Abuztuak 6, ostirala

20.00 Cross herrikoia.
24.00 Elurte taldearekin dantzaldia.

Abuztuak 7, larunbata

11.30 Ricardo de Leon eta Patxi Eugiri omenaldia. Ostein zapi gorria emanen zaie.
12.00 Txupinazoa. Gaitero, txaranga, erraldoi eta kilikiekin kalejira.
18.00 Zurrakapote lehiaketa.
18.30 Osasuna eta Aoiz taldeen arteko norgehiagoka.
20.00 Jator taldearekin dantzaldia.
12.30 Dantzaldia Jator orkestrarekin.
02.00 Larraindantza.
04.00 Kalejira.

Abuztuak 8, igandea

09.00 Dianak gaiteroen eskutik.
11.45 Meza eta prozesioa Mikel sainduaren omenez.
13.30 Erraldoi eta kiliki topaketa.
18.30 Pilota partiduak.
19.30 Kalejira.
20.00 Drindots taldearekin kalejira.
22.00 Su artifizialak txaranga eta gaiteroekin alaituak.
12.30 Drindots taldearekin dantzaldia.
02.00 Larraindantza.
04.30 Kalejira.

Ez da ohizkoa hogeita hamar urte pasatuta liburua argitaratzea, are arraroagoa liburu hori Nafarroako gaur egungo idazlerik onenetakoa bada. Baina Pablo Antoñanarena ere ez da egunerokoa.

Sari franko jasoa, argitaratu gabea, 60 urterekin heldu zitzaion onespina, «beranduegi», bere ustetan. Duela gutxi argitaratu dio Pamielak 'No estamos solos' liburua.

Gerrak zizeldutakoa

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Goizegi heldu gara bere etxera, Iruñeko Parte Zaharrean, eta kuluxkatik aterarazteagatik barkamena eskatzen diogunean, hoberako izan dela dio, azkar. «Baratzan aritu naiz azken bi egunotan eta atzo neka-neka eginda nengoen. Etorri ez bazinate ohean egongo nintzateke oraindik». Ez du galdu, Iruñera bizitzera etorriagatik, Bianarekiko atxikimendua, eta baratzan xahutzen ditu orduak, arbolak zaintzen. Ia bizitza osoa han eman eta gero, bere 'Yoarko Errepublikan', izendatu zuen bezala, gustura dago orain Iruñean, idazteko toki gehiago duelako eta kaleko bizitasuna dela eta. «Herriak husten hasiak dira, eta han ez zegoen dagoeneko lehengo giroa». Hala ere, herrian bizi izandakoak markatu, are zizeldu egin du Pablo Antoñana, eta bere idazkerak eta liburuek 36ko Gerraren eta aurreko gatazken iturrietatik edaten dute.

Hainbeste, ezen ezin bereizikoak baitira idazlea eta lana, bizitza eta sormena.

EGUNKARIA.— 'No estamos solos' liburuaren aurkezpenean, lehen nazka, amorrua eta harrotasuna zenuela zenioen, eta orain soilik nazka. Non gelditu dira amorrua eta harrotasuna?

PABLO ANTOÑANA.— Adina da. Gazte zarelarik mundua aldatzeko zerbait egin dezakezula uste duzu, eta ni aiur txarrekoa nintzen, inguruan nuenak nazka ematen zidalako. Hala ere, bannuen fedea, eta horrek orekatu egiten zuen nazka. Denbora pasatuta konturatu naiz alda zitekeen guztia ez dela aldatu: Franco hil ondoren 'hau' agertu zen, eta konturatu naiz berdin ez baina okerrago gaudela. Orain, beraz, nazka daukat, baina ez amorrua.

Izan ere, idazle honen lan osoak helburu eta esanahi bera dauka, gerrarena. Bortizkeriak izugarri kolpatu zuen gaztea eta nahiz eta zuzenean ez bizi, bere bizitza markatu zuen, ezinbestez.

«Bota ezin dudana 36 bat daukat sartuta, hezurren artean», zioen 1977an, eta, bistan da, oraindik ez du erauzi. «Gerran parte hartu ez baina protagonistak ezagutu nituen eta horrek zapuztu ninduen. Denbora joatean, nik uste nuen horrek amaiera izango zuela, tolerantzia eta bizimodu berriak izango genituela aurrerantzean, baina urteak aurrera doaz eta dena lotuta eta ongi lotuta dagoela konturatzen zara, gauzak garbi esateko modurik ez dagoela. Adierazpen askatasuna bada goela diote, baina komunikabideak oso menperatuak daude libre izateko, eta norabidea oso markatuta daukate. Kubako egoera —esaten dutenez, txoriak ere argalago daude—, Israel eta palestiniarrak, Bosniako egoera, Golfoko gerra... eta hori hemengo aipatu gabe, ez baitu nahi... Nola liteke ilusioa? Ezin dut».

EGUNKARIA.— Eta ilusio falta hori lagun ona al da idazteko?

ANTOÑANA.— Ez, ez du batere laguntzen. Orain gogo falta bes-

terik ez daukat. Idazten hasten banaiz eta gauza guzti horiek azaltzen baditut, inork ez du jaramonik egiten, ez du ezertarako balio. Eta horri buruz badago isiltasun tragiko ez, baizik lotsagarri eta higuigarri bat. Beraz, zer zentzu dauka idazteak? Jendeak irakurtzeko literatura *light* egin behar duzu.

EGUNKARIA.— Hala ere, ez diozu utzi idazteari.

ANTOÑANA.— Ez, egunero idazten dut zerbait, baina egunkariak gero eta gutxiago irakurtzen ditut. Irakurtzen hasi nintzeneko —Bianan, zortzi urte nituelarik, 'Abc' irakurtzen genuen— berri berberak ikusten ditut orain, gerra eta gizakumearen miseria berberak. Baina nere lanak zer eragin izan dezake hemen agintzen dutenengan, negar egiteko literatura da eta? Hondartzarako literatura behar da orain, Galaren 'Pasion Turca-ren' antzekoa. Hori da interesatzen duena: ongi idatzia, baina arina, ez da deus gertatzen. Hala ere, nik ezin dut


nere burua behartu beste era batera idaztera.

EGUNKARIA.— Literatura tristea egiten duzula uste duzu?

ANTOÑANA.— Bai, nigan eragin handia izan baitu ikusi nuenak. Ni oso ezkorra naiz. Oraindik ez dakit berez, jaiotzez, horrela naitzelako, edo nere inguruak horrela egin naudelako —badut susmoa lehen arrazoiarengatik dela—. Beraz, dena gaizki ikusten dut, iluna.

EGUNKARIA.— Espainiako Gerra aipatzen duzu, baina zure liburuotan gerra karlista da gaia.

ANTOÑANA.— Ziria sartzea izan da hori, aitzakia bat guda eta galtzailearen gaia tratatzeko. Gainera, distantziatik arinago idazten da. Material pila daukat 36ko gerrari buruz, eta horrela zailagoa da, nabarduretan itotzen baitzara, trabatzen baitzara. Gerra karlistarekin eskasagoa da materiala, eta gehiago asmatzeko beta daukat. Ez gezurrak esateko, nahiz eta idazleak, orokorrean, gezurtiak diren, baizik eta dauka-



Iruñeko bere etxean «plazer ttikiak» aurkitu dituela dio Antoñanak.

zunari zuku gehiago ateratzeko.

Pablo Antoñanaren 'No estamos solos' liburuak Madrileko Sesamo Saria irabazi zuen 1961ean, baina ez zen argitaratu. Antzera gertatu zitzaion 'La cuerda rota' eleberriri. 1962ko Nadal Sariaren bigarren finalista izan zenari. «Argitaratu gabe gelditu den Nadaleko bigarren sari bakarra da nobela hau», dio Pablok. Orduan zegoen sormen lanaren gailurrean, baina, «zorte txarra» izan zuen, berak aitortzen duen bezala. Askok uste dute nobela hauek argitaratuz gero —Nadal Saria orduko Espainiako sari famatuena zen—, beste kuku batek joko liokeela idazle biantzari, bere bizitzan zehar ezagutu duen ahanztura jasango ez lukeelakoan. 'El Capitan Cassou' bi hauen aurreko nobela ere, argitaratu gabea da, 'Acento' Madrileko aldizkariaren 1959ko saria jaso arren.

EGUNKARIA.— Nola irakurtzen da, nola sentitzen da duela 30 urte idatzitako liburu bat, lehenengoz kalean ikusten denean? Zurea bultz bezala sentitzen duzu oraindik?

ANTOÑANA.— Bai, berdin sentitzen dut oraindik ere. Uste dut gizakumearen baitan garapen

gutxi dagoela, politikoak kenduta, jakina. Horien aldaketa, baina, ez dakit barruko egitura-aren aldaketa, edo itxurazko aldaketa soilik den. Akaso lehen ez ziren eta orain ere ez dira. Baina

nere pentsakera berbera da, akaso nere zoritxarrerako: asto bat asto bat da, eta soilik idiek eta inozoek ez dute pentsamenduz aldatzen.

EGUNKARIA.— Ez al da gogorregia urte guzti hauetan sentimendu horiek barnean eramatea?

ANTOÑANA.— Sufritu egiten da, jakina, eta bakardadean sufritu ere. Gauza hauetaz hitz egiten dudanean harritu egiten nau nik bizitako berbera bizi duten nere lagunak esaten didatenak: «Ez hahi kezkatu, hi baratzan, lasai, lasai». Honek bakardadea sortzen dizu barnean, nere buruari esaten baitiot: «Ez kezkatzea? Lehen denok kezkatzen gintuzten gauza hauek eta horri buruz hitz egiten genuen». Orduan, pentsatzen dut: «Ni izango nauk, bada, inozoa...» Haiek mailaz igo dira, iritzi aldatu dira... eta sufritu egiten da.

EGUNKARIA.— Eramangarriagoa egiten du idazteak?

ANTOÑANA.— Ez dakit, nere jarrera honek ez baitarama inora. Kafearen usainan, gaiak nahasten dira, eta denei heltzen die idazleak, gogo onez. Victor Morenok, duela askotxo jada, zenbait ezaugarri nabarmendu zituen biantzaren lanean: metafora ezezagunak bilatzeko nahia; kutsu zaharra duten aditzen erabilera; deskripzioaren

nagusitasuna... finean, idazkera biziki landua eta biribildua. «Oso exigentea naiz idazten dudana-rekin, eta zerbaitek balioa baldin badauka, onar dezatela, bestela, hobe duzu puskatzea. Nik badaukat instintoa, eta txarra dena ez da ateratzen, soilik ona etortzen zait burura. Horregatik, zerbait idazten dudanean, berrirakurtzen dut, eta gero lotan uzten dut, berriro irakurri arte. Ez nuke inoiz, adinagatik edo, gustuko ez ditudan gauzak atera nahi. Inola ere ez».

EGUNKARIA.— Biana, 36ko Gerran, gorrotoak... zerbait aldatu da?

ANTOÑANA.— Ez, ez da ezertxo ere aldatu, hau geneekin doan gaitza baita. Biana borrokak oso markatuta egon dira beti, eta 1820an, kasu, bi talde zeuden: 'Blusakoak' eta 'Chupakoak'. Orduko epaile batek ez dakit zenbat fardel jaso zuen, pistola eta fusilez beteta. Karlistadetan ere oso arraroa izan zen, Biana po-break karlistak baitziren, eta dirudunak liberalak. Eta inguruko herrietan aldrebes gertatzen zen. 1913an bazirauen gorrotoak, eta ziria sartu zieten goardia zibilei herriatik atera zitezen, ustezko lapur batzuen bila. Atera zirenean, elkarri tiroka hasi ziren herrian bi taldeak, eta hiru hildako izan ziren. Epaileak esan zuen orduan hori izan zela hirugarren karlistadako azken gatazka. 36ko gerran ez zen desastrerik

Janzkera aldatu da, hitz egiteko eta tratatzeko modua aldatu da, baina Nafarroan, sakonean, gorrotoak dirau, dudarik ez».

gertatu, Goardia Zibilaren kornel baten bitartekaritza zela medio. Baina gero etorri zen ikurri-na, eta beste hainbeste... eta taldeek hor diraute.

EGUNKARIA.— Patua da, beraz, ezin da ezer egin?

ANTOÑANA.— Ezin da aldatu, izakera ere aldatu ezin daitekeen gisan. Etxetan, herrietan, etengabe errepikatzen baldin bada gorroto hori, beti dirau sentimendu horrek, eta hori da Nafarroako tradizioa: intolerantzia. Janzkera aldatu da, hitz egiteko eta tratatzeko modua aldatu da, baina Nafarroan, sakonean, gorrotoak dirau, dudarik ez.

EGUNKARIA.— Intolerantzia kultura faltak sortzen zuela esan ohi da beti.

ANTOÑANA.— Orain jende jantzia ikusten dut lehengo hitz berberak erabiltzen. Orduan, ez dakit kultura falta ote den. Baina intolerantzia hor dago, azal-azalean.

Aspaldi honetan lasaiago dagoela dio, akaso gertu-gertutik zuen guztia urrunago ikusten duelako orain, hiriburuan. Bere hitzek kontrakoa ematen badute ere, bihotza «sosegaturik» dauka, eta egunero idazten du. «Atsedena hartzen dut, nekea arintzeko, eta berriro nekatzen naiz. Izan ere, nekea pilatzen baita...



Udazkenean kalera aterako da 'El capitan Cassou' bere nobela.

JOXE LACALLE

«Ahaztuta baino, marjinatuta»

A.B. / IRUNEA

«Ez dut zortetik izan», errepikatzen du bere liburuaz galdegiten zaionean, eta hala berresten dute kritikariek. Franko ezezaguna Nafarroan —bere mailaz behiet dauen asko baino ezezagunagoa, behinpehin—, kritikoek bere idazkerak duen maila izugarria azpimarratzen dute, bere literatura Nafarroako hoberentzat jotzeraino. Horregatik, Antoñanaz hitz egitea, ahanzturaz hitz egitea da.

«Ez diote inolako garrantzirik eman nik idatzitakoari». Berandu izanagatik, maisutzat jo dute Nafarroako idazle askok, eta kritikoek oniritzia eman diote azkenean. Antoñanarendako, beranduegi. «Onespena orain etorri da. Orain arte inork ez dit esan ongi idazten nuela.

Orduan, idatzi, idatzi egiten nuen, baina hemen ez nuen inolako oihartzunik. Orain dela ho-

geita hamabost urte idatzi nituen lehen lanak, eta ondoren jarraitu egin dut, baina inork ez du hitz egin nere lanaz. Ongi etorri zait, hori bai, herrixketan udal idazkaria nintzen bitartean idatzi egiten bainuen, eta inor ez zen enteratzen. 1986an nere liburuak argitaratu zirenean, orduan enteratu ziren».

«Idazleek orain onespena ematen didatela? gaitzerdi! Orain ez dit askorako balio, zaharra bainaiz. Estimaten dut, egin dudan guztiak zerbaitetarako balio izan baitu, baina lehen esan izan balidate, orain daukadan baino askoz lan gehiago idatziko nukeen. Baina inork ez zidan ezer esan. Ona nintzela uste bazuten, isildu egiten zuten».

Nafarroako bi egunkari nagusietan kolaboratzaile urteetan, harremana ere eten egin zen, eta ez du inoiz erakunde ofizialen onespenik izan. Horregatik, marjinazio hitza aipatzen du, ahanz-

turaren partez. «Nahiz eta egunkarietan idatzi, haiek bazekiten ez nintzela beraien mundukoa, beraien girokoa. Beraz, nekez goraiatu ahal ninduten. Agoanatu egiten ninduten, baina kitto. Haiek bazekiten nola pentsatzen nuen nik. Franco hil ondotik gauzak aldatuko zirela uste genuen, baina izan dira onespen ofiziala eskuratu duten pertsonaiak, existitzen zutenik ere ezagutzen ez nuela. Ezta zer egiten zuten ere. Eta nitaz ez dira inoiz oroitu. Egia esan, ez nago harremanetarako egina, baina horrek ez dio axola».

Urteekin ahaztu du pixka bat samin hori, baina oraindik zainetan jartzen da salatzerakoan, azken prentsaurrekoan gertatu zitzaion bezala. Orain, etxeko la-saitasunean, bere liburuakin aurkitzen du plazerra. «Gero eta guxtiago afektatzen nau, nere plazer ttikiak baitauzkat. Finean, gus-tura nago, bai».

Gazteendako Zokoa



Jose Cortes (Anaitasuna) Jesus de la Villaren (Oberena A) aurka.

1. e4, c5; 2. Zf3, Zc6; 3. d4, d4; 4. Zd4, Zf6; 5. Zc3, e5; 6. dZ-b5, d6; 7. Ag5, a6; 8. Za3, b5; 9. Zd5, Ae7; 10. Af6, Af6; 11. c3, 0-0; 12. Zc2, Ab7; 13. Ad3, Zb8; 14. cZ-e3, Zd7; 15. Ac2, Ag5; 16. Df3, Eh8; 17. h4. Alde horretan endrokea egitea zailtzen du jokaldi honek. Ez dirudi egokia. 17... Ae3; 18. Ze3. Damaz harrapatu behar zuen (Ikus koadroa). 18... f5; 19. 0-0-0, e4; 20. De2, Zc5; 21. h5, a5; 22. h6, g6; 23. Gd2, b4; 24. c4, a4; 25. Ab1. Jokorik gabe geratu da alfil hau. 25... Ge8; 26. hG-d1, Dg5; 27. Gd6, Dh6; 28. Dd2, b3; 29. a3, Aa6; 30. Gd5. Leku txarrean utzi du gaztelua, eta beltzei jokaldi taktikoa ahalbidetu. 30... Ze6; 31. Ae4, Ac4; 32. Eb1, Ad5; 33. Dd5, Zc5; 34. Af3, Df4; 35. Zg4, fG-d8; 36. Dd8 xa, Gd8; 37. Gd8 xa, Eg7; 38. Ge8, Df5 xa. Txuriek utzi zuten jokoa (Ea1, Dc7 eta matea dator). Endrokeari egindako eraso hau, alfilaren ahultasuneaz baliatu da.

Bertsoak

Gure herrian dago fabrika izena duena Egoki ta horrek ematen digu bai txit askotan erabaki jateko benetan guk asko gure biziko txerriki eta baita ere berarekin asetzeko aina barazki eta horrela bizi gerade paketsu eta txit ederki Aita amak ditugu lanean guri emateko jana mundu honetan janarik gabe hilko bait gara pixkana eta ideia hori delako bai jende guztiak daukana horrexegatik guk ere laster bilatu beharko bai lana aita amaren soldatarekin ez dugunez nahiko jana

Asier Berean

Jenero Xumekoak

Iturengo arotza

Kobrezko San Kristobala urtu zuen Iturengo arotzak. Betiko famatu zen Iturengo arotza. Gaur egungoak famatuko badira, zure bihotza, Anizeta, zure bihotza urtu behar.

JEREMIAS ERRO

Itsasoa: bizitza eta heriotza

IGOR ARROYO

Olatuak hondartza barrenean abiatzen dira, leku batean galditu eta berriro itzultzen dira hondar eta zabor hondakinak utziz. Nahiz eta jakin zeintzuk diren beren mugak, olatuek beti jarraitzen dute sartzen eta jeisten, lurrarekin daukaten borroka irabazi nahian. Haizeak zartada hotzak ematen dizkit aurpegian. Kai-txoriak itsaso urdinaren gainetik dabilta hegan. Ama, afaria egiten ziur aski, abesten ari da. Itsas argiak pizten dira bapatean, ontzi galduei esku bat luzatu nahian. Nik jarraitzen dut itsasoari begira. Betidanik atsegin izan dut hondartzan eseritzea eta itsasoari begiratzea. Baita ere, gustatzen zitzaidan maskorrek uretara botatzea. Milaka oroimen ekartzen dizkit burura ur multzo handi harek. Nere familia betidanik izan da arrantzalea eta itsasoaren hizkera ezagutzen zuen. Bai, guretzat itsasoa gure bizitza da. Baina baita ere gure heriotza.

Nere anaia eta aita ur azpira joan ziren ekaineko ekaitz azpi-

suge batean. Oso traidorea baita itsasoa. Kontuz ibili berarekin! Batzutan mantso-mantso barrukaldeko zelai lanak bezalakoa, haize izpirik gabe eta bestetan bost metrotako olatu beldurgarriekin eta haizeak halako abiadurarekin ze batzutan ontzietako erdialdeko masta botatzen zuen izugarritzko ondorio txarrekin. Gutxienez dozena bat ontzi joan dira Lazoko haitzen kontra.

Baleontzi bat astiro-astiro sartzen da kaian gaua pasatu asmoz. Azken aldiotan ez dago bale askorik eta joanak dira dagoeneko. Gainera berdeak edo halakoak deitzen dieten batzuek baleka harrapatzea debekatu nahi digute. A, zer denbora haiek, baleak harrapatzea irteten ginenean! Egia esan ni bizpahiru aldiz bakarrik joan naiz eta baleak ia desagertuak zeudenean baina aitonak ematen zizkidan historiak! Ikaragarriak ziren, eta, neguan suntuondoa elkartzen ginen familia osoa aitonari entzutearren. Bere zakur zaharra oin artean zuela, sutan ipintzen zituen begiak eta mantso-mantso, itsasoko historia

zaharrak kontatzen zizkigun. Aitona gaixoa! Hainbeste urte ekaitzei hortzak erakusten eta hara non ohetik erori eta buruhezurra apurtzen duen! Bizitzatik agurtzerako egunean, jende asko joan zen aitona nola lupertatzen zuten ikustera, oso maitatua baitzen aitona.

—Pedro, etor hadi afaltzera!
—Banoa, ama.

Bai, itsasorik gabe ezin ginateke bizi. Gertaera zoriontsu edo txarren lekuko ixila izan da beti. Eta baita entzule zintzoa, sekretua gordeko zuela jakinez lasai hitzegin ahal zenionari. Eta jana ematen zigun.

Eguzkia gaueko bainuan sartu da, bere izpi gorrixkak itsasotik zabaltzen dituela. Argiak itzaltzen dira, leihoak itxi. Tximeneatik ateratzen zen ke-sorta, izpi gris bat bihurtzen da. Olatuak gora eta behera dabilta. Bi hanken gainean jartzen naiz eta etxerantz abiatzen naiz eskuak poltsikoan ditudala. Izara ilun bat herritik zabaldu da eta goian izarrak disdiraka dabilta. Olatuen soinuak. Itsasoarenak.



KAZKARROAN

BOSTEKO TTIPIAK

Zenbaki bakoitzeko hitz bakar bat eta bera

1. Herri nafarra
2. Aldiz
3. Ipar, Lema
4. Teilatu pieza
5. Egonak

1. Herri nafarra
2. Portuak
3. Aihier, aurka
4. Narda
5. Lekuak



Uiarra

Ameskoagoieneko ibai nagusia Entzia mendiko hego ixurrian sortzen da, Araban. Aurrerago, Kontrastako lurrak zeharkatu ondoren, Nafarroan sartzen da.

Ibaiaren ur-emanak gora behera handiak ditu, ez euri ezagatik baizik eta bidean galtzen duenagatik. Aipatutako irregulartasuna betidanik izan da arazo-iturria bertako herrientzat, batez ere Aranaratxe, Eulate eta Larraonako errotei heldu zitzaient kalteagatik.

B. Garcia de Albizuk esan digun bezala Ameskoan *El Rio* esaten diote normalean, eta oso gutxitan, izen espezifikoaz baliatzen dira: *Uiarra* (Uyárra ahoskatua). Ikertzaile horrek frankotan bildu du izen hau artxibategietan, aurreneko aldiz Apeo de Loquizen izeneko agirian 1356ko Otsailaren hiruan. Agiri horren ondorengo kopietan honako bariante hauek ikus ditzakegu: *Huair* (1542), *Rio Duarr* (1735), *Huyar* (1768). Eta bestelako agirietan: *Huryarra* (1496), *Uyarra* (1550)... Esanahiaz den bezainbatean ur ikusten da alde batetik eta *iarra*, etimologia ilun xamarreko bigarren osagaian, bestetik.

Beraz, dokumentu hauetako ia erreferentzia guzietan, *Uyarra* edo *Uiarra* nagusi azaltzen zaizkigu XIV. mendean hasi eta XIX. menderaino, non, aurreneko aldiz, *Biarr* forma agertzen den. Madozek horrela idazten du bere hiztegi ospetsuan seguruenik *u* hizkia *v*-arekin nahastu zuelako. Bielza de Oryk biak erabiltzen ditu baino *Uiarra* lehentasuna emanez.

Hala ere Madozen eragina haundia da eta berak egindako hutsa geografo askok errepikatu dute, jendeari galdetu beharrean *Diccionario*tik zuzenean kopiatzeagatik. Esate baterako, gaur egun usu erabiltzen den bi liburu aipatzeagatik, *Uiarra* aurkitu nahi duenak lan zaila izanen du. *Gran Enciclopedia Navarra* Biarraren hitzaren azpira jo beharko du irakurleak, eta *El Agua en Navarra* izeneko liburuan, *V*-ra hurbildu beharko *Viarra* aurkitzeko.

Ameskoarrek, oraindik ere, forma zaharrari eusten diote baina toponimo kontuetan hitz idatzia duen ikaragarritzko prestigioa dela eta zalantzan daude ez oten den benetazko forma gaurko liburu guzietan ikusten dena, eta ez ote den *Uiarra* herriarrek dabilten forma zakarra.

Kartografia ofizial berrian *Uiarra* erabiltzeak, agian, izen zaharra berpiztuko du.

MIKEL BELASKO

Bizi Bizian

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Sanferminen bukaerarekin batera etorri ohi da beti Nafarroan laborearen uztu biltzea. Aurtengo ekoizpena ona izan da oro har, eta, dagoeneko bilduta, fruta eta barazkien zain dago orain nekazaria, beti dirulaguntza eta uztu kopuruen mehatxupean.

Laboreak, bereziki garia eta garagarra, Nafarroako nekazaritza ekoizpenaren zati handiena osatzen du, luzez gainera. 22.000 milioi pezetako etekinekin, ekoizpenaren % 42 osatzen du, barazkiak (% 24) eta frutaren (% 8) aurretik nabarmen. Aurtengo ekoizpena, esan bezala, ona izan da oro har, baina desberdintasunak izan dira inguruen aldean. Horrela, hegoaldean, etekin eskasak izan dira, lehortek kalteak eragin baizituen eta udaberriko kazkabarrak ere bereak egin zituen. Eta ekoizpenak sumatu du, sumatu ere.

Iruñerrian ekoizpena ona izan da, baina hasieran espero zenaren azpitik beti ere. Udaberriko euriek itxaropen franko sortu zuten Nafarroako kopururik altuenak biltzen duen inguru honetako nekazariengan, baina azkenean emaitzak ez dira hasieran iragarri ziren bezalakoak. «Hala ere, nekazari askok sinatuko lukete heldu den urterako ere produkzio bera» dio EHNE sindikatuak, udaberrian sartu ziren nekazariak kontuan hartu ondoren, zonalde honetako sindikatu nagusia. Tafalla eta Lizarrerrian, bestalde, ekoizpena franko ona izan da.

Iruñerria da Nafarroako zonalderik laborariena, tradizioz. Udaberrian berdez jantzen dira zelaiak, eta uda hurbiltzen den heinean, horiari urte koloreak jarraitzen dio. Orduan heldu da uda. Orduan, uztu biltzeko garaia. Aurten, baina, larreetan barna ibili den oro konturatuko zen urtea ez zela hain urtea. Urtea urria zela, alegia. Izan ere, eguzkilore izan da nagusi toki askotan, zorioneko dirulaguntzak direla eta. Eguzkilorea, ordea, bertan utziko dute askok, eta, akaso, ganaduarendako bazka bezala erabiliko dute.

EGUZKILOREA BILDU GABE

«Penagarria da horrela ibiltzea» dio Javier Izko Labianoko (Aranguren) nekazari gazteak, «nekazariari betidanik izan duen bultzada hori kentzen baitiozu. Gu beti saiatu gara ahalik eta ekoizpen handien ateratzen, eta hori da nekazaria-

Iruñerrian laborearen ekoizpena ona izan da aurten baina hala ere, espero zenaren azpitik, udaberriko euriek itxaropenak sortu baitzituzten.



Fardelak, dagoeneko bilduta, Zizur Zendea.

JOXE LACALLE

Laborea bilduta dago jadanik Nafarroan, nahiko emaitza itxurosoekin. Iruñerrian eta Lizarrerrian Erriberan baino hobea izan da sasoiak eta nekazari askok aurtengo ekoizpena heldu den urterako sinatuko luketela diote EHNE, sindikatu nagusian. Eta kontuan hartu behar da Nafarroako nekazaritza produkzioaren % 43 biltzen duela laboreak.

Urte kolorekoa

ren eginbeharra, baina nik, kasu, erein ditudan mila arrobada eguzkiloreetatik, 700 inguru ez nuen ezta prestatu ere egin. Hartu, erein, eta gero ez dut ezta bildu ere egingo. Akaso, ardienda-ko...»

Izan ere, dirulaguntza handiak eman zituen iaz Europako Elkar-teak eguzkilorea ereiteagatik, eta hortik ikusi zuten nekazariak etekin handiena ateratzeko bidea. «Iaz EEBBak kexuka aritu ziren nola liteke horrelako dirulaguntza handia ematea eguzkilore landatzeagatik, baina aurten eutsi diete, eta hurrengo urteetan ere dirulaguntzak izango dira». Berak, ordea, ez du berriro ereingo. «Heldu den urtean ia dena garia jarriko dut. Aurten banekien ez zela lur ona eguzkilorearendako, eta, esan dudana bezala, ez nuen lurra prestatu ere egin. Beraz, hurrengoan ia dena garia, eta zertxobait ganaduaren bazkarako hementxe bertan, Labianon».

IRUÑERRIA ZONALDERIK ONENA

Izkok 1.200 arrobada inguru dauzka, Deierrri, Longida eta Iruñerrian sakabaturik, eta inguru hau Nafarroako hoberena dela dio. «Iruñerrian beti izan dira oso ekoizpen kopuru altuak, eta bereziki ona da

Deierrriko inguru hori, Murieta, Azkona, Ugar, Aritzaletan..., onena da. Carrascaletik beheiti, baina, dextente jaisten da bildutakoaren kopurua». Hain zuzen ere, ekoizpen kopuruen inguruan izan ziren eztabaidak eta istiluek sortu zuten urte honen hasierako haustura Iruñerriko laborarien artean: gehienak UAGNtik atera eta EHNE sartu ziren. Javier Izkoren ustetan, Iruñerriari emandako tratua kopuruetan «bigabekeria» izan zen. «Hondoraino sartu zuten hanka, eta Erri-

berari eman zizkioten ekoizpen kopururik altuenak, nahiz eta hemengo emaitzen erdia ere ez bildu han. Guri 3.700 kilo eman dizkigute ekoizleko. Horrek esan nahi du kilo horiei eman zaizkiela dirulaguntzak, eta ez besteei. Kontuan hartu behar da laubapost urte barru garia 15 pezetara jaitsiko dela, eta azienda errentagarria egiteko behar diren 23 pezetataraino heltzeko izango direla dirulaguntzak. Hemen, kasu, 600 kilo inguru ekoizten dira arrobadako, beraz, guren-

dako oso kaltegarria da kopurue-na, eta Erriberakoei askoz gehiago eman diete».

Laboreraren ondotik barazkia eta fruitaren txanda dator. Azken honetan orain da biltze garaia, eta nahiz eta Nafarroako ekoizpenaren % 8 besterik ez izan, funtsezko garrantzia dauka zenbait herritan: Ribaforada, Mendabia, Karkar, edo Sartagudan. Hala ere, bertan ez da ezta iazko erdia ere bilduko eta egoera bereziki kezkarria da melokotoiarekin, Europako Elkar-teak soberakina izendatu baitu. Horrek sortu du prezioen beherakada izugarria. Barazkietan, bestela, zainzuria behin bilduta, tomatearen txanda da orain, eta prezioa aurretik hitzartutakoa izanik, nahiko aurrikuspen positiboak daude nekazarien artean.

Deierri ingurua, Murieta, Ugar, Azkona eta Aritzaleta, Nafarroako ingururik onena da. Arterderretatik beheiti franko jeisten dira kopuruak.



Deierri da ingururik onena laborearendako.

Felipe Uriarte

mendi gidaria

«Iraultzak mendian hasi dira»

A. BARANDIARAN / GAITZA

Gaintzako bere etxean, motxila, botek eta lo egiteko zakuak agurtu gaituzte, atarian barreiatuak, espedizio berria prestatzen ari den seinale. Etengabe deiak eta mezuak: Alpeetara. Hogeita bederatzi urte zituenetik mendi gidari lanean sartuta, ez dio gustua galdu etxe ondoko paisaiari, eta Balerdi ikustean «izugarritzko poza» sentitzen duela dio. Felipe Uriarte, mendia ulertzeko modu eta erreferentzia bat 1980an ikurrina Everesten zegoelako berriak ikutu, bereziki ikutu gintuenendako.

EGUNKARIA.— Beti gogoan daukat, 1980ko Euskal Espedizioa Everestetik etortzerakoan, horri buruz eman zenuten mintzaldi batean, gailurraren garrantzia gutxieteko zure ahaleginak, ez zitzaizula «gehiegi» interesatzen eta.

FELIPE URIARTE.— Interesatu bai, edozein gailur, baina ez diot halako garrantzirik ematen. Garrantzizkoa da, gauzak bukatzea gustatzen zaizulako, baina ez da dena. Bukaera da, baina mendira joatea bidaia bat da. Eta inportanteena bidaia da, eta hor gertatzen diren gauzak. Bidaia ederra da sekulan bukatzen ez dena, eta alde filosofiko batetik garrantzia kentzen diot gailurrari, bukaerari.

EGUNKARIA.— Euskal Herrian izugarritzko gertaera izan zen Martin Zabaletaren igoera, baina ahaztu da apur bat talde osoa, espedizioa. Nola gogoratzen duzu esperientzia?

URIARTE.— Bai, urte hartan Martin Zabaleta igo zen, besteok ez ginen existitzen. Hori normala da, nahiz eta hasieran min ematen dizun. Inbidia izan nuen orduan, ez dakit sanoa edo gaiztoa, baina inbidia, kristoren lana egin genuelako. Nik sentitu nuen hori,

eta ez dut ukatuko, mendizaleak ere pertsonak garelako, aldrebesagoak gainera. Gero hori gainditzen da, eta oraintxe mendira noa Martinekin. Inbidia jarraitzen badu, ez duzu lagunik.

EGUNKARIA.— Iaz beste zortzi euskaldun igo ziren Everestera. Duela hamar urte hain zaila zena gauza erraza bihurtu da?

URIARTE.— Normala da, Everestek, 83tik hona kristoren aldea izan baitu. Nepaleko Gobernua hasi zen baimenak barra-barra ematen, eta lehen espedizioak bakar-bakarrik egoten ziren eta orain hamar espedizio daude toki berean, eta atzetik datozenek ia dena jarrita daukate. Ez diot, baina, meriturik kentzen, Euskal Herriko mendigoizaleen historian salto handia izan baita eta

gaur egungo gazteak askoz hobeto prestatuta daude.

EGUNKARIA.— Baina gauza asko galdu dira bidean, ezta? Felix Iñurrategik aipatu zuen azken kanpamentutik 25 pertsona abiatu zirela egun berean gailurra egitera. Ez al da larregi?

URIARTE.— Bai, larregi da, eta

Gauza asko galdu dira bidean: bakar-dadea, abentura, mendiarekiko zure neurria... baina mundu honetan asko gara, baita Everesten ere».

gauza asko galdu dira: bakardadea, abentura, zure neurri garbiak mendiarekiko... Baina mundu honetan asko gara, baita Everesten ere.

EGUNKARIA.— Martin Zabaletak aipatu zuen duela gutxi amerikar baten kasua: diruduna, Everestera heldu nahi zuen, nahiz eta esperientziarik ez izan. Dena prestatu berarendako, azken tontorreraino eramane, eta gailurra egin zuen. Ez al da mendiaz trufa egitea?

URIARTE.— Hor mendi gidarien lanean sartzen gara. Guk ez dugu bakarrik gailurra eta kirola erakutsi nahi, bizitzaren beste ikuspegia baizik. Uste duzu hori gizarterako ona dela, eta horregatik lan egiten duzu. Aipatu duzun kasu horretan guzti hori galtzen

da, eta bakarrik kirola gelditzen da. Hala ere, mendia hain sakona da, ezen pertsona horrek ere zozter ikusiko zuen, barrenean zerbait geldituko zitzaion. Oso gogorra izan behar du ezer ez sentitzeko.

EGUNKARIA.— Mendiaren ikuspegi edo filosofia horrek, gaur egungo lehia handiaren artean —inork baino zailago eskalatu, gailurra egin beharra...— oraindik ba al dirau?

URIARTE.— Lehen bezala, denetarik dago. Estilo horrek oraindik badirau, eta mendiaren esentzia hori da, azken finean: mendia bidaia bat da, jendearen eta herrien garrantzia, barneko paisaia kanpoko bezain inportantea da, guzti hori gordetzen da. Beharbada, mendia gero eta kontsumitzaileagoa da, gizartea ere horrela baita. Kantitatean denetarik sartzen da, eta balde handi batean oso babarrun ezberdinak sartzen dira, kolore ezberdinetakoak...

EGUNKARIA.— Baina mendia ez al zen azken gordelekua?

URIARTE.— Baina gizarteak dena ikutzen du, baita mendia ere. Gero eta jende gehiago joaten baldin bada mendira... Beraz, gizartearen dagoen lehia mendian ere bada, gero eta gehiago. Ez dut esango lehen ez zegoenik, baina orain gehiago, eta azken igoeretan igarri da. Garai batean mendizaleak ikutu bat zeukan, eta borroka eta iraultzak mendian hasi dira. Gaur egun, hori galdu egin da nolabait.

EGUNKARIA.— Zein duzu bereziki gustuko mendia?

URIARTE.— Ez daukat, horrela... baina bat izatekotan, orain Balerdi. Ikusi eta poztu egiten naiz. Izugarri polita da, urtean zehar asko aldatzen da... Baina toki batera joaten banaiz, saiatzeko naiz mendi hori maitatzen. Ez daukat nobia finkorik...



Balerdi atzean duela.

A.B.

NOSKI JATOR

ZVLDI EROA

